ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 UZT. 24
..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2014 UZT. JUL. 30
Idazkariak

GHK
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa

OBRA KONTRATAZIOA
PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

EZAUGARRIEN TAULA

KONTRATUAREN XEDEA	GAKOA	KODEA
BERGARAKO EPELEKO KONPOSTATZE PLANTA ETA TRANSFERENTZIA ESTAZIOAN URA BILTZEKO DEPOSITUAK EGITEKO, SAKONERA HANDIKO SAREEN ZATI BAT EGITEKO ETA PLATAFORMAREN ZATI BAT EGOKITZEKO OBRA ZIBILA ERAIKITZEA	2014H	CPV: 45213260

AURREKONTUA

Zifratan	Letratan
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA: 993.802,62 € (BEZik gabe)	BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA BI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (BEZik GABE)
BEZa: 208.698,55 €	BERREHUN ETA ZORTZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO

GAUZATZEKO EPEA	BERANDUTZA ZIGORRAK
HAMAR (10) ASTE	BABParen V. KAPITULUA Atzeratutako egun natural bakoitzean, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zigorra.

PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA

Ez dagokio prezio berrikuspenik

BERMEAK

Behin-behinekoa	Behin betikoa
	Esleipen zenbatekoaren % 10 (BEZik gabe)

ENPRESA SAILKAPENA

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
A	2	F
E	1	E

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 UZT. 24 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2014 UZT. JUL. 30
Idazkariak,

GHK
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa

ALDAERAK

Onarpena	Eskakizunak, modalitateak eta aspektuak
EZ	EZ DA ALDAERARIK ONARTUKO

ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO EZ DIRENAK

Irizpideak		Haztapena (0-20 puntu)
1.	- Proiektuan deskribatutako lanak exekutatzeko lizitatzaileak proposatzen dituen eraikuntzako metodologiak eta/edo metodoak azaltzeko Memoria	**0- 5 puntu**
2.	- Lan-programa, lan bakoitzerako erabiliko diren giza ekipoen eta materialen tamaina eta kopurua, horien errendimendua eta, ondorioz, jarduera bakoitzerak esleitutako denborak xehatuko dituena. Epea laburtzea baloratuko da, laneko planean justifikatzen bada aurreikusitako errendimenduekin	**0- 15 puntu**
Proposamen Teknikoaren balorazioari dagokionez, **gutxienez 12 puntu lortu beharko dira teknikoki gai dela erabakitzeko**. Gutxieneko puntuazio horretara heltzen ez diren proposamenak lizitaziotik kanpora utziko dira, eta ez da haien eskaintza ekonomikoa baloratuko.		

ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO DIRENAK

Irizpideak		Haztapena
1.-	**Prezioa**	**0 - 80 puntu**

FORMULA ARITMETIKOEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA (PREZIOA)

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraibide hauek izango dira gidari:
Beherapen maximoa: 80 puntu
Batez besteko beherapena: 72 puntu
Batez besteko beherapena -%5: 64 puntu (Batez Besteko beherapena >%5 bada bakarrik aplikatzekoa)
Batez besteko beherapena -%10: 48 puntu (Batez Besteko beherapena >%10 bada bakarrik aplikatzekoa)
0 beherapena (Eskaintza Prezioa = Lizitazio Prezioa): 0 puntu

Eskaintzetako "prezio" elementua konparatzeko, eskaintza bakoitzeko prezio garbia bakarrik hartuko da kontuan (BEZa sartu gabe).
Beherapena (**B**) izango da, lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuarekin zatituta.
Beherapenak bi balioren arteko tarteetan daudenean, puntuazioa kalkulatzeko linealki interpolatuko dira tarte bakoitzaren mugako balioak.
Batez besteko beherapena kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- Eskaintza bakarra baloratzen bada, aurkeztutako eskaintzako beherapena izango da Batez Besteko Beherapena.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 UZT. 24 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2014 UZT. JUL. 30
GHK Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa
Idazkaritza,

GHK
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa

- Bi eskaintza baloratzen badira, bi eskaintzetako beherapenen batez bestekoa izango da Batez Besteko Beherapena.
- Hiru eskaintza edo gehiago baloratzen badira, Batez Besteko Beherapena kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko ez beherapen handiena duen eskaintza eta ezta beherapen txikiena duena ere.

Ez dira kontuan hartuko lizitazioaren oinarrizko prezioa baino proposamen ekonomiko handiagoa egiten duten eskaintzak.

Balio neurrigabeak edo anormalak dituzten eskaintzak

1. Eskaintza bat anormala edo neurriz kanpokoa dela ulertuko da, baldin beraren beherapen portzentajeak %10ean edo gehiagoan gainditzen badu onartutako proposamen guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa.
2. Kontratu honen objektuari buruzko eskaintza anormal edo neurriz kanpokorik hartzen bada, Kontratazio Mahaiak, atzera bota aurretik, proposamen hori aurkeztu dutenei idatziz eskatuko die egoki deritzon argitasunak eman ditzatela eskaintzaren osaerari buruz, eta osaera hori egiaztatuko du, ematen dizkioten azalpenak kontuan izanda. Horretarako hiru (3) eguneko epea emango die lizitatzaileei, azalpen-eskaera jasotzen dutenetik kontatuta.
   Kontratazio Mahaiak justifikazio objektiboak kontuan hartu ahal izango ditu, esaterako, eraikitzeko edo fabrikatzeko metodoaren ekonomia, edo aukeratutako soluzio teknikoena, edo kontratua exekutatzeko bereziki onuragarriak zaizkion baldintzak izatea.
   Edozein eratan, eskaintza anormalki baxurik aurkezten bada, GHK-k atzera bota ahal izango du eskaintzaren lizitatzaileak emandako justifikazioaren arabera.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

MILIOI BAT BOSTEHUN MILA EURO (1.500.000).

ERAIKUNTZAKO ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA

- ESLEIPEN ZENBATEKO OSOAREN GAINEAN (BEZa barne)
- PROIEKTUAREN ALDAKETEK KONTRATUAREN ZENBATEKOA ALDATZEN BADUTE, BERMATUTAKO KAPITALA PROPORTZIO BEREAN ALDATUKO DA

BERME ALDIA

HAMABI (12) HILABETE, lanen harrera egiten den egunetik aurrera

AZPIKONTRATATU DAITEKEEN GEHIENEKO PORTZENTAJEA

% 50

KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duen araudia (besteak beste Gipuzkoako Foru Aldundian hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Foru Dekretua.
Errotuluak, oharrak, seinaleak edo, oro har, obrak egitearekin lotutako adierazpen edo argibide oro euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Grafikoki lehentasuna emango zaio euskarari gaztelaniarekiko.

GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 UZT. 2 4 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2014 UZT. JUL. 30
Idazkariak,
GHK Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa

KONTRATAZIO MAHAIA

GHK, SAUko Administrazio Kontseiluak 2013ko azaroaren 25eko erabakiz sortutako Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.